

ZUMAIA / Helduengan euskararen erabilera bultzatzeko liburuak ' askatuko ' dira herriko zenbait tokitan

ZUMAIA. DV. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, orain hasi eta udara bitartean, garatuko diren ekimen eta jardueren berri eman zituzten atzo Euskara Sailaren buruak, Maria Eugenia Arrizabalaga alkateak eta Josune Herrarte eta Xabier Azkue euskara teknikariek. Euskararen erabilera bultzatzeko asmoarekin abian jarritako ekimen hauen artean, Liburulibre programa, errenta aitopenak euskaraz egitea eta tabernatako kartak eta menuak euskaratzeko kanpaina agertzen dira, besteak beste.

Euskararen kale erabileraren ondorioek bultzatu dute Udala ekimen hauek antolatzen. Azterketak ondorioztatu zuenez, helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. Hori dela eta, helduei zuzendutako ekimenak landu nahi izan ditugu, adierazi zuen alkateak.

Kanpaina honetako lehen ekimeak dagoeneko abian dago. Liburulibre izeneko programa honek Bookcrossing izeneko mugimendua du oinarri eta ideia Euskararen Aholku Batzordean sortu zen. Aurkezpen ekitaldian adierazi zuten, lehen udala da mota honetako ekimen bat bultzatzen duena. Gure kasuan erabat euskaraz garatuko den ekimena da, liburuak euskarazkoak izango dira eta web gunean erabiliko den hizkuntza ere bai, gehitu zuen Arrizabalagak.

Euskal literatura eta irakurzaletasuna bultzatzeko balioko duela uste dute kanpainaren bultzatzaileek, ez garai konkretu batean, urte guztian baizik. Euskara sailekoen esanetan, umeengan zaletasun hori bultzatzeko hainbat ekimen garatzen dira haur liburutegiaren bitartez, baina helduentzat ezer gutxi antolatzen da helburu horrekin, eta hutsune hori betetzeko balioko du. Nerea Uriarte liburuzainak aukeratutako 30 bat liburu askatuko dira kanpainaren lehen urrats honetan. Horietatik dozena erdi inguru gazteentzako liburuak izango dira, eta gainerakoak helduentzakoak, denak ere euskarazko liburuak. Herriko zenbait idazlek idatzitako liburuak aukeratu direla gaineratu zen. Argitu zenez, liburuak beren ohiko lekuetatik kanpo egongo dira baina herritarrak egunero ibiltzen diren lekuetan aurkitu ahal izango dira (anbulatorioan, kiroldegian, etab.), horrek zumaiarren eguneroko bizimoduan txertatuko du euskal literatura. Liburulibre logotipoarekin identifikatutako liburuak herriarena dira, zumaiarrenak, beraz, edonork har ditzake eta irakurtzeko etxera eraman. Liburu bat hartutakoan interneten www.zumaia.net/liburulibre/ helbidean sartu eta liburu non eta noiz hartu den idatzi behar da. Irakurri ondoren, berriz, nahi den lekuan utzi (leku estalian izan dadila, liburu ez hondatzeko) eta helbide berean non eta noiz utzi den idatzia utzi behar da, iri-tzi labur batekin batera. Internet bidez, liburu bakoitzaren jarraipena egin ahal izango da eta irakurri aurretik besteak liburuaren gainean zein iritzi duten ere jakingo da.